



Arartekoaren 2022R-2003-20 Ebazpena, 2022ko otsailaren 10ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari gomendatzen zaio zehaztu dezala bi pertsonak atzerrian eskuraturiko titulu akademikoen baliotasuna, unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako aldi baterako irakasleen enplegu-zerrendara sartzeari dagokionez; araudian aurreikusitako batzorde espezializatuak egiten duen egokitasun-azterketaren ondorioari jarraikiz, eta orokorrean ezartzen diren bat-etortzearen irizpideak ezarriz.

Aurrekariak

1. Pertsona batek (...) Arartekoari eskatu zion azter zezala Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bere titulu akademikoari emandako tratamendua Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako irakasleen beharrak aldi baterako betetzeko hautagaien zerrendara sartzeari dagokionez.

Pertsona horrek Bachelor of Engineering in Aerospace Systems Engineering titulua du, Southamptoneko Unibertsitatean (Erresuma Batua) eskuratua, eta, horrez gain, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak 2019ko ekainaren 24an igorritako ziurtagiri bat du, eta horren bidez titulu hori Ingeniaritza eta Arkitekturako ezagutza-adarreko gradu maila akademikoaren baliokidetzat jotzen da, Ingeniaritza eta antzeko lanbideen arlo espezifikoan.

Azaldu zuenez, bere tituluari gradu-mailako baliokidetzak emateko eskaera izapidetzen ari zen bitartean, hainbat kontsulta egin zizkion hezkuntza-administrazio horri eta aipaturiko zerrendan sartu ahal izateko izapideak egin zituen. Horrez gain, gaineratu zuen Hezkuntza Sailak ez ziola eman horren inguruko informazio argirik, eta bere tituluaren baliokidetasun-ziurtagiria aurkeztu zuenera arte ez zitzaion jakinarazi administrazio horrek ez duela onartzen dokumentu hori zerrendara sartzeko; aitzitik, titulu jakin batera homologatzea eskatzen du.

Jarraian, eskaera bat aurkeztu zuen eskatzeko gradu-mailako baliokidetzak zerrendara sartzeko titulazio gisa onar zezaten. Ez ziotenez eskaera horri erantzun, bere eskaeraren izapidetze-egoeraren inguruan galdetu zuen eta jakinarazi zioten zegokion ministerioari kontsulta bat egingo zitzaiola kontu horren inguruan, beharrezkoa baitzen ebaluatzea erabakiaren legezko inplikazioak.





Hainbat hilabete beranduago eta gaiak geldirik jarraitzen zuenez, pertsona honek kexa bat aurkeztu zuen Arartekoan.

2. Erakunde honek bidali zizun hasierako informazio-eskaerari erantzunez, Hezkuntza Sailak txosten baten bidez erantzun zuen. Bertan adierazten zen hautagaien zerrenda arautzen duen araudiaren¹ III. eranskinean irakaskuntza-espezialitate bakoitzari sarbidea ematen dioten titulazio zehatzak jasotzen zirela.

Txostenean adierazten zen, halaber, Hezkuntzako Ministerioak atzerrian eskuraturiko tituluekin egiten duen homologazio-prozesuan, atzerriko tituluaren homologoa den Espainiako unibertsitate-titulu ofizialaren izena zehazten dela; ostera, baliokidetzat adierazpen bat denean, ez da Espainiako titulu jakin bat jasotzen, horren orde, atzerriko tituluak jakintza-adarretan eta esparru espezifikoeetan kokatzen ditu.

Horiek horrela, lehenengo kasuan ez litzateke arazorik egongo atzerriko titulu bat duten pertsonak irakasleen zerrendetan sartzeko, arestian aipatutako eranskinari jarraikiz; hala ere, zailtasun handiak sortuko lirateke baliokidetzat jotako tituluaren kasuan.

Azkenik, txostenean azaldu zen Hezkuntza Sailak kontsulta bat egin ziola Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioari, jakinarazi ziezaion ea atzerrian lortutako unibertsitate-tituluak dagokienez maila akademikoan eta ezagutza-adarrean administrazio horrek egiten dituen baliokidetasunek estatuan lortutako gradu-tituluen ondorio berberak izan behar dituzten, hartara, horiek ere hezkuntzako zerrendetan sartu ahal izateko.

3. Arartekoak hezkuntza-administrazioari eskatu zion jakinarazi ziezaiola Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak zer erantzun eman zuen, zer jarduketa egingo zituen egindako azterketaren ondorioetatik abiatuta eta, ondorioz, zer tratamendu arrazoitu emango zitzaion kexagilearen asmoari.

Eskaeran, era berean, azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuan² ezarritakoaren azterketan eta unibertsitatez kanpoko irakasleen kidegoetan

¹ Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan dauden irakasle-beharrak aldi baterako betetzeko hautagaien zerrendaren kudeaketari buruzko araudia. Zerrenda hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak 2012ko abuztuaren 27an emandako aginduaren bidez onetsi zen.

² 967/2014 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, unibertsitateko titulazio eta ikasketa-maila ofizialarekin homologatzeko eta haren baliokidetzat jotzeko zein ikasketak baliozkotzeko baldintzak eta prozedura ezartzen dituen, atzerrian egindako goi-mailako ikasketei dagokienez, bai eta kualifikazioen espainiar esparruaren baitako



sartzeko baldintzak aldi baterako irakasleen enplegura sartzeko eskatzen direnekin egindako konparazioan oinarritutako hainbat argudio ematen dira. Argudio horiek aurrerago aztertuko dira, ebazpen honen justifikazioaren parte izango baitira.

4. Jarraian, Hezkuntza Sailak Arartekoari jakinarazi zion oraindik ez zutela jaso Ministerioaren erantzuna eta bidalitako eskaera behar bezala bideratuko zela hori jaso eta aztertzen zenean.
5. Izapide horiek gauzatzen ziren bitartean, kexa berri baten aurkezpenak antzeko ezaugarriak zituen beste kasu bat mahaigaineratu zuen.

Kasu honetan, biologia zientzien lizentziatura titulua zuen —Universidade Federal do Rio Grande do Norte (Brasil) unibertsitatean lortutakoa— pertsona bat zen (...); horrez gain, jakinarazi du Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak 2015eko abenduaren 16an emandako ziurtagiri bat ere baduela, eta horrek egiaztatzen duela titulu hori zientzia ezagutzaren adarren graduaren maila akademiko parekidean dagoela, biologia zientzien eta parekoen esparru zehatzean.

Pertsona horrek hautagaien zerrendan sartzeko eskaera bat egin zuen, ordura arte ebatzi ez zena.

Egoera horiek ikusita, erakunde honek bi kexen azterketa pilatu zuen eta hala jakinarazi zion Hezkuntza Sailari, izapidetzearen egoera zein zen adierazten zuen idazki baten bidez, hezkuntza-administrazio horrek Ministerioaren erantzuna jasotzen zuenean egingo lukeen azterketaren zain.

Hala ere, geroago, bigarren kexa honen sustatzaileak Langileriaren Kudeaketa zuzendariaren ebazpen baten kopia helarazi zion Arartekoari. Horren bidez, beren-beregi ezetsi zen kexagileak zerrendara sartzeko egin zuen eskaera, oinarri hartuta administrazio horrek kontu hori aztertzen hasi zenean adierazi zituen arrazoiak.

Zehazki, ebazpen horretan honela justifikatzen zen bere erabakia:

“Por otra parte, al hilo de lo regulado por el artículo 8.4 antes mencionado, ya que para entrar en listas solamente se requiere estar en posesión de título pertinente y no se exige pasar ningún tipo de examen, las titulaciones deben ser las que exactamente se recogen en el anexo

mailen baliokide direnak zehazteko prozedura ere, arkitekto, ingeniari, lizentziatu, arkitekto teknikoa, ingeniari teknikoa zein diplomadun goi-mailako titulu ofizialei dagokienez.





III de la Orden de candidatos; esto es, no deben ser diferentes a estas o generalistas, como es el caso.

El Ministerio de Universidades expide la equivalencia al nivel académico de Grado en la rama de conocimiento de Ciencias en el campo específico de Ciencias Biológicas y Afines del título Licenciada em Ciências Biológicas obtenida en la Universidad Federal do Rio Grande de Norte, Natal, Brasil.

Al contrario que pasa con la homologación, no se hace referencia directa a las titulaciones concretas que están en vigor en el estado, sino al campo y a la rama general de conocimiento. Por consiguiente, y en aras de la seguridad jurídica, la equivalencia presentada por parte de la interesada no puede ser tenido en cuenta para poder entrar en listas ya que estas formas generalistas de denominar las titulaciones extranjeras no están recogidas dentro del Anexo III de la normativa de candidatos.”

6. Hainbat hilabete igaro zirenez Hezkuntza Sailak erakunde honi jakinarazi zionetik oraindik ez zuela jaso Ministerioak kontsultari emandako erantzuna, eta kontuan izanda hezkuntza-administrazio hori berariazko ezespen-ebazpenak hartzen ari zela kexak hizpide zuen gaiaren harira, Arartekoak berriro adierazi zuen gaiaren inguruko interesa.
7. Azkenik, Hezkuntza Sailak txosten bat bidali zuen eta bertan ziurtatu zuen Unibertsitateen Ministerioaren erantzuna ez zuela eman informazio garrantzitsurik kasu horietan jarduteko moduari buruz, hortaz, zerrendara sartzeko eskaerak —baliokidetasun-adierazpenetan oinarrituak— ezesten ari ziren, oinarri hartuta araudiak titulu jakin batzuk eskatzen dituela horretarako.

Txosten horrek aipaturiko erantzunaren kopia bat zuen erantsita. Bertan, gaiaren inguruko hainbat gogoeta egin ostean, honako ondorio hauek ikusi daitezke:

“Por ello, la declaración de equivalencia a nivel académico y rama tiene los mismos efectos que los títulos obtenidos en territorio nacional. No obstante, reiteramos que todo ello desde el punto de vista académico y que corresponde a la autoridad convocante del proceso selectivo valorar los requisitos fijados en la convocatoria (entre ellos las titulaciones y las materias a impartir) y los aportados por los solicitantes a efectos de poder acceder a las listas mencionadas en la consulta.”

Gogoetak

1. Unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan dauden irakasle-beharrak aldi baterako betetzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudiaren 8. artikuluan aipaturiko zerrendan sartzeko eskatzen diren baldintzak arautzen dira; besteak beste, jarraian aipatzen diren hauek:





- Jarraian zehazten diren tituluak izatea honako zerrenda hauetako taldeetarako:
 - a) Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza: maisu/maistraren, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakaslearen edo Lehen Hezkuntzako maisu/maistraren titulua, edo dagokion gradu-titulua.
 - b) Bigarren Hezkuntza, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakaskuntzak, Musika Irakaskuntza eta Arte Plastiko eta Diseinuko Irakaskuntza (Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleei gordetako irakasgaiak): doktore-, lizentziatu-, ingeniari- edo arkitekto-titulua, edo irakaskuntzaren ondorioetarako horien baliokide den gradu-titulua edo beste titulu baliokide batzuk.
- Dagokion espezialitatea emateko kualifikazioa izatea, bat datozen edo antzekoak diren tituluak izatearen arabera adierazia, titulu eta espezialitateak zerrendatzen dituen III. eranskinean xedatutakoaren arabera.

8. artikuluko horren 4. atalean zehaztasun hau jasotzen da atzerrian eskuraturiko tituluak izateari dagokionez:

“Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, zerrendan parte hartzeko eskatutako espainiar-titulu zehatzari atzerriar tituluaren homologazioa kreditatu behar da, edo aitortpena, Hezkuntza Ministerioak emandako kredentzialaren bidez, haren titulazioak ahalmena ematen diola parte hartu nahi duen zerrendan dagokion irakaskuntzetan eta gaietan lanbide arautua Espainian jardun ahal izateko.”

Bestalde, araudiaren III. eranskinean irakaskuntza-espezialitateen eta horietako bakoitzera sartzeko eskatzen diren titulazio espezifikoen arteko erlazio-taula bat jasotzen da.

2. Adierazitakoa ikusita, ondorioztatu behar da gaia arautzen duen araudiaren arabera, atzerrian eskuraturiko tituluak erabat baliozkoak direla zerrendako espezialitate desberdinetara sartzeko.

Aurreikuspen hori gorabehera, araudi horrek eskatzen du, oro har, titulu horiek homologazio ofiziala izatea araudian aurreikusitako Espainiako titulu zehatzarekin, edo, bestela, aitortua izatea titulu horiek edukitzeak ahalmena ematen diola titularrari dagokion lanbide arautua betetzeko. Hala, sartzeko baldintza bat ezartzen da, baina kasu gehienetan, eta ondoren azalduko den moduan, baldintza hori ezin da bete, gaia arautzen duen estatuko araudia kontuan hartuta.





3. Azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuak³ atzerrian lortutako tituluak homologatzeko prozedurak eta unibertsitateko maila akademiko eta titulazio ofizial gisa baliozkotzeko prozedurak arautzen ditu.

Araudi horretan ezarritakoa ikusita, bi prozedura desberdin dira eta interesdunek ezin dute horietako bat hautatu, tituluen ondorioak estatu barruan aitortuak izan daitezzen.

Hala, homologazio-prozedura soilik aplikatzen zaie Espainian araututako lanbide baterako sarbidea ematen duten atzerriko tituluei, baldin eta titulu horiek izatea nahitaezkoa baldin bada lanbide horietan lan egin ahal izateko. Ondorio horietarako, Errege Dekretuaren I. eranskinean araudiaren zerrenda bat jasotzen da, zeinak guztira 36 lanbide araututan aritzea ahalbidetzen duten titulu zehatzak ezartzen dituen, hain zuzen ere, homologazioaren xede izan daitezkeenak.

Aitzitik, gainerako tituluen ondorioak aitortzeko aurreikusitako prozedura, hain zuzen ere, honako hau da: ezagutza-adarretako eta eremu espezifikoko unibertsitate-titulu ofizialen eta gradu edo masterreko maila akademikoaren baliokidetzea. Errege dekretu horren II. eranskinak lotzen ditu jakintza-adarrak eta -eremuak, aurreko beste arau batean xedatutakoaren arabera.

Ondorioz, lanbide arautu batera bideratzen ez duten tituluak ez dute titulu jakin baten homologaziorik lortuko; beraz, Hezkuntza Sailaren interpretazioari jarraituz gero, horiek guztiak titularrari zerrendara sartzeko gaitasuna emateko aukeratik kanpo geldituko lirarteke.

Horrela, eta nahiz eta hautagaien zerrenda kudeatzeko araudiak ez dituen hasietarik baztertzeko atzerrian eskuraturiko tituluak, hala ere, baldintza hori ezartzeak nahi ez den eragina sortzen du titulu horietako gehienetan, kontuan izanik araututako lanbideak guztizkoaren zati txiki bat baino ez direla; eta horrek, azken batean, kalte nabarmena eragiten die ukitutako pertsoneri.

4. Bestalde, Hezkuntza Sailak ez ditu zalantzan jartzen kexa horiek eragin dituzten tituluen baliokidetasun-adierazpenen ondorioak, izan ere, adierazpen

³ 967/2014 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, unibertsitateko titulazio eta ikasketa-maila ofizialarekin homologatzeko eta haren baliokidetzat jotzeko zein ikasketak baliozkotzeko baldintzak eta prozedura ezartzen dituen, atzerrian egindako goi-mailako ikasketei dagokienez, bai eta kualifikazioen espainiar esparruaren baitako mailen baliokide direnak zehazteko prozedura ere, arkitekto, ingeniari, lizentziatu, arkitekto teknikoa, ingeniari teknikoa zein diplomadun goi-mailako titulu ofizialei dagokienez.





horiek aitortzen dute titulu horiek estatu mailan eskuraturiko gradu-titulu batek izango lituzkeen ondorio berberak dituztela.

Adierazi du, zerrendara sartzeko azterketa egin beharrik ez dagoenez, espezialitate desberdinak irakasteko egokitasuna egiaztatzeko beharrezkoa dela espezialitate horietako bakoitzerako berariazko tituluak izatea, araudiaren III. eranskinean ageri den erlazio-taularen arabera.

Titulazio espezifikoki hori eskatzen denez eta kontuan hartuta baliokidetasun-adierazpenek ez dutela jasotzen zein titulu espezifikorekin parekatu beharko liritekeen atzerriko tituluak, hezkuntza-administrazioak ez ditu aintzat hartzen titulu horiek kasu horietan aitortuak dituzten gradu-mailako ondorio generikoak.

Puntu honetan, adierazi beharra dago oinarrizko araudian unibertsitatez kanpoko irakasleen kidegoetara sartzeko eskatzen diren titulazio-baldintzei dagokienez⁴ honako hau jasotzen dela: espezialitate-espezifikaziorik gabeko gradu-titulu bat izatea; izan ere, kidegoetan sartzeko sistemaren arabera, gaikuntza irakaskuntza-espezialitate bakoitzean egiaztatu beharko da, oposizio-faseko ariketen bidez.

Honela, eta Hezkuntza Sailaren webguneak ziurtatzen duenaren arabera, atzerrian lortutako titulu bat gradu-maila akademikoaren baliokidetzat jotzeko adierazpenak aukera ematen du betetzat jotzeko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan sartzeko hautaketa-prozesuan eskatutako gradu-titulua izateko baldintza.

Arartekoak egoera horren berri eman zuen Hezkuntza Sailari zuzendu zion informazio-eskaeran, eta bertan adierazi zuen gure ustez kontraesankorra izango litzatekeela, oro har, aldi baterako enplegua lortzetik baztertzea administrazio horrek aldi baterako sarbidea erregulatzeko prestatu duen araudian ezarritako titulu eta espezialitateen konfiguraziora egokitzen ez diren titulu guztiak, behin betiko lanpostua eskuratzeko ahalmena izan arren.

⁴ Horretarako, honako arau hauek aldera daitezke:

- Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren bederatzigarren xedapen gehigarria.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateaz Kanpoko Irakasleen Kidegoen otsailaren 19ko 2/1993 Legearen 17. artikulua.
- Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasleen kidegoetan onartzeko, sartzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko Erregelamenduaren 13. artikulua, eta otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako lege horren hamazazpigarren xedapen iragankorrean aipatzen den sartzeko araubide iragankorra arautzen da.





Hautemate hori, hala ere, ez zen aintzat hartu inola ere erantzun-txostenean; hori dela eta, horren edukia zehaztu edo argitzea ahalbidetzen duen beste edozein argudio edo uste arrazoiturik ez dagoenez, berriro errepikatu besterik ezin da egin orain.

5. Europako zuzenbidearen ikuspuntutik, lanpostu bat lortzeko orduan Europar Batasuneko estatuak igorritako tituluak ez aitortzeak langileen zirkulazio askerako eskubidea —Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko tratatuaren (EBFT) 45. artikuluan jaso— bidegabe murriztea eragin dezake. Artikulu hori, era berean, estatu kide bateko pertsona nazional batek beste estatu kide batean bere oinarrizko prestakuntzaren osagarri den unibertsitate-kualifikazio bat eskuratu duenean eta bere jatorrizko herrialdera itzuli ostean berau baliatu nahi duenean aplikatzen da, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ezarri duenari jarraikiz⁵.

Illo horretatik, auzitegi horrek aitortzen duenaren arabera, estatu kideek eskubidea dute lanbide bat burutzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta kualifikazioak zehazteko eta eskakizun horiek betetzen direla ziurtatzen duen titulu bat eskatzeko. Hala ere, eskumen hori EBFTan bermatutako oinarrizko askatasunak errespetatuz gauzatu behar dela ezartzen du, eta, bereziki, justifikatu gabeko oztoporik eragin gabe aurreko paragrafoan aipatutako zirkulazio askerako eskubideari.

Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, kualifikazio-baldintzak ezartzen dituzten arau nazionalak nazionalitate-bereizkeriarik gabe aplika badaitezke ere, berez, oinarrizko askatasunen erabilera oztopatzea ere eragin dezake, baldin eta arau horiek alde batera uzten badituzte interesdunak beste estatu kide batean dagoeneko eskuratu dituen ezagutzak eta kualifikazioak.

Hori dela eta, Auzitegiak gogoratu du estatu kide bateko agintaritzek, Batasuneko pertsona nazional batek titulu, baldintza gisa lanbide-kualifikazio edo esperientzia praktiko bat izatea eskatzen duen lanbide bat burutzeko baimena eskatzen badie, aintzat hartu behar dituztela pertsona horren diploma, ziurtagiri eta bestelako titulu guztiak, bai eta haren esperientzia ere. Hori horrela, konparatu egin beharko dituzte, alde batetik, titulu horiek eta esperientzia horrek egiaztatzen dituzten gaitasunak eta, beste aldetik, legedian eskatzen diren ezagutzak eta kualifikazioak.

⁵ Azter bedi, horretarako, 2015eko urriaren 6ko epaia, C-298/14 auzian emana.





Konparazio-azterketa horren helburua izango litzateke harrerako estatu kideko agintaritzek objektiboki ziurta dezatela atzerriko tituluak egiaztatzen duela titularrak badituela titulu nazionalak egiaztatzen zituen ezagutza eta kualifikazioak; eta berdinak ez badira behintzat, horien baliokideak.

6. Erakunde honek badaki zer nolako kudeaketa-arazoak izan zituen hautagaien zerrenda kudeatzeko araudiak diseinaturiko sistemak Unibertsitate Titulu Ofizialen Katalogotik (itxita eta mugatua) gaur egungo sistemara igarotzerakoan (non unibertsitateek berek gaitasuna baitute eman beharreko irakaskuntzak eta tituluak sortzeko eta proposatzeko). Konfigurazio berri horri esker, tituluaren inbentario zabala agertu da, eta, hortaz, ez dago aukerarik alde aurreko zerrenda itxi bat (aipaturiko araudiaren III. eranskinean jasotakoa bezalakoa) ezartzeko.

Nolanahi ere, hautagaien zerrenda kudeatzeko araudiak berak (zeinak dagokion espezialitatean sartzeko baldintza gisa bere III. eranskinean jasotzen dituen titulu espezifikotako bat izatea eskatzen baitu), era berean, ebazpen hau eragin duten kexetan azterturikoak bezalako kasuei heltzea ahalbidetzen duen sistema bat aurreikusten du, izan ere, eranskineko erreferentziako titulazioak aldatzeko aukera jasotzen baitu, eta dagoeneko bildutako bezalako batzuk gehitzen ditu, batzorde espezializatu bakoitzak kasu bakoitzean egindako azterketaren bidez.

Zehazki, araudi horretako bigarren azken xedapenari buruz ari gara, eta honela dio hitzez hitz:

“Agindu honen bidez, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari gaikuntza ematen zaio, premia badago eta dagokion ebazpenaren bidez, sindikatu-ordezkaritzarekin dagokion negoziazioa egin ondoren, ikasturtean zehar eta bereziki birbarematze-prozesu bakoitza hasi aurretik, titulazio berriak sar ditzan; hain zuzen ere, III. eranskinaren titulazioen eta espezialitateen taulan jasotako espezialitateen bat emateko gaitzen duten titulazio berriak. Era berean, lehendik daudenak aldatzeko eskumena ematen zaio, akatsak aurkitzen badira edo dagokion txostena egin bada.

Halaber, gaikuntza ematen zaio Zuzendaritza horri zehatz dezan hautagaiek aurkezten dituzten Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko unibertsitateetako gradu-titulazioek eta III. eranskinaren titulazioen eta espezialitateen taulan agertzen direnek zer baliokidetza izango duten, betiere kontuan hartuta aztergai diren titulazioen ikasketa-planak. Birbarematze-prozesu bakoitzari ekin baino lehen argitaratuko da finkatutako baliokidetzen zerrenda; argitaratu ere, www.euskadi.eus/eusko-jauriaritza/hezkuntza-saila/ web-orrian eta irakaslegunea ingurunean. Baliokidetza horiek agindu honetan araututako ondorioetarako baino ez dira.

Batzorde bat eratuko da horretarako, kide hauek izango dituena: Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako teknikari bat, Langileriak Kudeatzeko Zuzendaritzako teknikari bat,





Unibertsitate Zuzendaritzako teknikari bat, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuaren Zuzendaritzako teknikari bat eta Hezkuntza Ikuskaritzako ikuskari bat. Batzorde horrek aztertuko ditu sartze berriak, aldaketak eta baliokidetzak, eta dagozkion proposamenak egingo dizkio Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari. Kasu bakoitzean zer gai aztertu behar den, aholkulari espezialistak izenda daitezke.”

Erakunde honen ustez, kontuan izanda aurreko ataletan adierazitako argudio guztiak, aipaturiko batzorde espezializatuak kexagileek alegaturiko tituluak aztertzeak arestian deskribaturiko oztopoak gainditzea eta antzemandako arazoei irtenbidea ematea ahalbidetuko luke, araudian beren-beregi aurreikusteko tresnak ezartzearen bidez.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Hezkuntza Sailak zehaztu dezala (...)k eta (...)k atzerrian eskuraturiko titulu akademikoen baliotasuna, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako irakasleen beharrak aldi baterako betetzeko hautagaien zerrendara sartzeari dagokionez; araudian aurreikusitako batzorde espezializatuak egiten duen egokitasun-azterketaren ondorioari jarraikiz, eta orokorrean ezartzen diren bat-etortzearen irizpideak ezarriz.

